

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Osasun Pastoraltzak batzarra Donostian /8

BERRITZE LANAK

Eskoriatzako armarrria zaharberitu dute /9

LEINTZ GATZAGA

2003ko aurrekontua onartu dute /10



**ERREGIONALEKO
BIGARREN
MAILAKO TALDEA
IGOTZEKO
BIDEAN**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 22
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 23
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX
Katxi porreta emanaldia aurkeztuko dute Takolo, Pirritx eta Porrotzek bihar, zapatua, kirol etxean, 17:00etan.

'EGUNKARIA'-REN ALDEKO BATZORDEA

Komunikazioaz arduratzen den *Egunkaria*-ko batzordeko taldea astelehenean, hilak 24, batuko da udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARALARREN AURKEZPEN EKITALDIA

Martitzenean, hilak 25, aurkezpen ekitaldia egingo du Aralar taldeak udaletxe zaharrean, 19:00etan.

DANTZA IKASTAROA

Dantza garaikidea ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak apirilaren 5etik maiatzaren 31ra bitartean. Izena emateko kirol etxera jo.

GAZTE-LEKURAKO BEGIRALEA

Poxpolin Aisialdi Taldeak begiralea behar du gazte-lekurako. 18 urtetik gora izatea eta euskaraz jakitea beharrezko dira. EGA eta aisialdiko tituluak, ikasketak eta eskarmentua izatea baloratuko dituzte. 12 eta 16 urte bitarteko gazteekin egon beharko du asteburu, jai bezpera eta jaiegunetan, 17:00etatik 21:00etara. Curriculumak udaletxean utzi edo kultura@aretxabaleta.net helbidera bidali.

LORAMENDIRENAGENDA

HITZALDIA
Txileko eta Guatemalako hizkuntzen gainean egingo dute berba Mundukiderek in etorritako lagun bik. Eguenean, hilak 27, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

DIPOSITIBA EMANALDIA
Korrika Kulturalaren barruan, Jon Arretxe idazleak *Sumatra bizikletaz* diapositiba emanaldia egingo du hilaren 28an udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ORAINDELA 70URTEARETXABALETAN

Loramendi poeta hil zen 1933ko martxoaren 23an

Juan Arana Ezpeleta *Loramendi* Bedoñako Mendibitsu baserrian jaio zen. Euskaltzalea eta poeta, euskal berpizkunde garaikoa. Fraide izateko erabakia hartu zuen. Hala ere, ez zuen sekula mezarik esan, 26 urte zituela eta lehenengo meza esateko 23 egun falta zitzaizkiola hil zen-eta.

*Azur zeruho gorri-lanua!
Azur zeruho ustur asuna!
Azur hira
ehaiko orpa
indar mashaen sururak!
Ara gurea ashalanua!*

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Anporra"

Pertsona gizen eta baldarrari esaten zaio.
—Aspaldixan ikusi barik neukan Pedro, eta, aura dago anporra, aura.

ZORIONAGURRAK

ESKORIATZA
Ane Benito
19an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.

ESKORIATZA
Josu Armendariz
19an. Zorionak eta urte askotarako, Oihanaren partetik.

ESKORIATZA
Irati Armendariz
20an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

ARETXABAETA
Jose Benito Aiastui
21ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

ESKORIATZA
Aratz Kortazar
22an, 15 urte. Zorionak, anaiaren eta gurasoen partetik.

ARETXABAETA
Iker Pérez
22an, urtebete. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.

ESKORIATZA
Aitor Antuñano
23an, 14 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.

ARETXABAETA
Amaia Irure
24an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

ARETXABAETA
Gorka Zumalde
24an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

ARETXABAETA
Julen Arriola
25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

0 eta 5 urte arteko umeak:

- 'Hiru bidelapurak'/ Tomi Ungerer
- 'Jonen lanbideak'/ Antonio Rubio; Rebeca Luciani
- 'Hamalau, jostun kementsua'/ Xoan Couto; Jose Ignacio García
- 'Baratzeko misterioa'/ Lawrence Schimel; Sara Rojo
- 'Kurruku oilarra'/ Tareixa Alonso; Alicia Suárez
- 'Larremotzeko sorgina'/ Xose Ballesteros; Ana Pillado
- 'Sagu Anderea'/ Jose Antonio López Parreño; Pablo Mestre
- 'Igor'/ Charo Pita; Carmela Mayor
- 'Patxiku'/ Paula Carballeira; Blanca Barrio
- 'Daratulua'/ Juan Kruz Igerabide; Marko
- 'Nire aita errege'/ Thierry Robberecht; Philippe Goossens
- 'Mikela igela saila'/ Merce Aragona
- 'Bizi garen mundua'/ Sergio Folch; Patricia Geis
- 'Denak du konponbidea'/ G. Berca; Jana Cando

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Lubia
oinetakoak

zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABAETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABAETA
Tel: 943 79 01 28

IZOTZ Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABAETA

Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaeta
Tel.943 79 94 15


ATREBENTZIAEZPADA/ Azkenaldixen manifestaziño ugari egin die; zerbaitetarako balixo daue?




ITZIAR GONZÁLEZ
Langillie




JOSE JOAQUIN UGARTE
Langillie



J. A. ORTIZ DE MENDIBIL
Langillie



ROSA ETXEBERRIA
Langillie



AITOR AZKUNAGA
Langillie



OLAIA URTZELAI
Langillie

Uste dot baietz. Behintzet jentie kontzientziau daixen balixo daue holako manifestaziñuek. Ikusi daixiela jentie mugittu egitten dala. Nik neuk danetan ez, baiñe batzutan hartu dot parte.

Nik ezetz uste dot, ez daue la ezertarako balixo. Neuk hartu dot parte banakaren baten, baiñe ez dot uste horrekin ezer lortuko dogunik. Gobiernuek ez daue euren jarrerie aldatuko.

Ez dakit. Baiñe manifestaziño horreikin, behintzet, jentiek gure dauena esatie lortzen dau. Neu Donostian egon nitzen *Euskaldunon Egunkaria*-ren alde egin zan manifestaziñuen.

Balixo, balixo ez. Baiñe zelanbait esan bihera dau zerbaiten aurka gauzela. Neuk *Euskaldunon Egunkaria*-ren alde egindako manifestaziñuen hartu neuen parte.

Nik uste dot norberan eritxixe emuteko bakarrik balixo dauela manifestaziñuek. Bestela... ezer gutxi-rako, esango neuke. Hala eta be, zerbait egin bihera dau, bestela...

Ez dakit, baiñe geldi egon aurretik, hobe da manifestaziño bat edo beste egittie. Hala eta be, garbi ikusten da ez dauela ezertarako balixo guk egindako manifestaziñuek.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK URKULUN AUTOAK NONAHI APARKATUTA Urkulun zapatu eta domeketan jende ugari batzen da. Batzuk hasi dira oinezkoendako bidea erabiltzen hara urreratzeko, baina, oraindik jende asko autoz joaten da urtegiraino. Noski, han ez dute udaltzainik ez eta isunen beldurrik eta gura duten lekuan aparkatzen dute askok autoa. Horiendako, aste honetako txistua. /A.L

ETABARRUAN...

LANAK /04

Arkarazoko biderei dirua

Arkarazoko baserri batzuetara doan errepidea konpontzeko 115.000 euro eman-go du Udalak.

ELKARRIZKETA /05

Arantzazu Arroiabere

*Euskaldunon Egunkaria*ko langile aretxabale-tarrak gaurko egoeraren berri eman gura du.

KIROLAK /06

Igoera fasea jokatzeko gertu

Erregionaleko bigarren mailako UDA taldeak igoera faseko lehenengo partidua jokatu du.

ASTEKODATUA

15.000

EURO FALTA DIRA RUKULLAKTA PROIEKTURAKO

Amazonian Rukullakta proiektua amaitzeko 15 mila euro besterik ez du behar Hiruatz elkar-teak. Proiektua egiteko 84 mila euro batu behar zituzten eta dago-eneko 69 mila batu dituzte.

BESTEKEESANA

“Aretxabaletan gaueko giroa asko jaitsi da; zapatueta, esaterako, %50 jaitsi da. Egubakoitzetan uste

dut leku guztietan berdin ibiliko dela; oro har, giroak beherakada izan du.


Uste dut ohitura aldaketek zerikusia izan dezaketela. Lehenago Arrasatetik Aretxabaletara etortzen zen jendea eta orain, berriz, alderantziz, jendea Arrasatera joaten da.

Gaueko autobusa jende gazteak erabiltzen du, eta jende gaztea, noski, jendea eta giroa dauden lekura joaten da; egun Arrasate da leku hori.

Nik uste dut dirua egon badagoela. Gertatzen dena da ohiturak aldatu egin direla. Orain jendeak beste gauza batzuetan gastatzen du dirua. Diru gutxi daukanean jendea herrian gelditzen da. Gastatzeko duenean, ordea, kanpora joaten dira.

JULEN BARANDIARAN
Arrasate Irratia/03-03-13

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Txapapotearen Parientearen Bila

Artikulu hau kaleratu orduko, Gerrate berri bat izango dugu munduan. Oraindik ez dute bataiatu, baina militar listoren batek jarriko dio gogoratzeko izen espektakularren bat: desertuko ekaitza, justizi bukaezina, agian “Txapapotearen Parientearen Bila”...

Iraken, Saddam Hussein deritzon tipo batek gaur Gizatasunaren etsai Handiena omen denak, arma izugarriak omen ditu, oso ondo gordeta, gainera.

Baina lasai, hor daude gure mundua salbatzeko SuperHeroia eta bere lagunak, NBEek (ezertarako balio ez duen talde internazionala) esaten dutenari kasurik egin gabe, mundua gaitz guztietatik salbatuko dutenak.

Gerrate guztiak bezala, ez da irabazle eta galtzailerik izango. Denok galduko dugu. Irakiar herri guztia suntsituko dute. Heriotza larregi, eta hiltzen direnak gelditzen zaien

bitzita betiko markatuta edukiko dute, ziur SuperHeroiak esperimenduak egiteko aprobetxatuko duela, kimikak hartuko duela txanda. Hori bai, janaririk (hauts eran aurkeztua, eta ulertuko ez duten instrukzioekin idatzia) ez zaie faltako irakiarrei, hegazkineta-

tik botako diete... gogoratu SuperHeroiak direla...

Baina ez arduratu, emango dizkiguten irudiak ez dira inpaktanteak izango, gerrate bat baino gehiago, Valentziako Falletan gaudela emango du, suzko erruberak eta guzti. Espektakulua ziurtatua dago.

Gauza da armen kontu hori guztia gezurra omen dela, eta benetan nahi dutena azkenaldian hain famatua egin zaigun petrolioaren (Txapapotearen pariente zuzena) jabe egitea da... Agian gero itsasora jaurtitzeko, edozeinek daki...

Bukatzeke, Gernika berriz errepikatuko da, eta zorritzarek ez da azken aldia izango.

“Gerrate bat baino gehiago, Valentziako Falletan gaudela emango du, suzko-erruerak eta guzti. Espektakulua ziurtatua dago”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirarj Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

IRAKURLEAREN TXOKOA

FELIS BELTRAN DE
HEREDIARI ERANTZUNA

Arreta handiz irakurri dut joan den Asteko ARETXAGAZETAko *Herritarren* *berbak* atalean argitaratua eman zenuen iritzi artikulua, eta Goienako ardura-dunen aldetik erantzun bat merezi duela uste dut.

Lehenik, eskerrak eman behar dizkizut tarteka zerbait idazteko duzun ohituragatik. Izan ere, oso garrantzitsua da guretako hiritarren parte-hartzea. Ez soilik berez dugun helburu-tariko bat delako, baizik eta kasu honetan bezala gaizki egiten ari garena gogoratu eta benetan garrantzia duten gaietan ardura berezi bat jartzeko dei bihurtzen delako.

Ez naiz gehiegi arituko zure gutunaren lehen zatiaz, azken batean bizipen eta sentipenetan oinarrituta dagoelako, eta hauek norberarenak izanik ez dira eztabaidagai. Hala ere, gauzei bere izenez deitzearen, esan behar dut inork ez diola inori ARETXAGAZETA lapurtu, aitzitik, gaur Goienak ekoizten badu, Loramendi eta Goienaren artean egindako hitzarmen baten bidez egin dela. Emaitza Debagoieneko hiritarrek ondo baloratzen duten astekaria izan da. Beste era batera ezin izan, profesionalen zorroztasunari, euskara elkarten partaidetza eta udalen bermea gehitzen dion egitasmoa izanik.

Banaketan, ostera, badugu arazoa. 2002. urteko martxoan egin genuen azterketa batean, aretxabalarren %28,3k esaten ziguten "batzuetan ez zutela jasotzen aldizkaria". Portzentajea kontuan hartzekoa da, ibar osoko altuena. Hala ere, aldaketa garrantzitsuak egin ziren 2001 eta 2002. urteetan. Goienak ARETXAGAZETAko ekoizpena bereganatu aurretik, tirada ozta-ozta iristen zen 1.500 aletara eta hauetatik, 500 inguru ziren etxez etxe banatzen zirenak. Gaur egun, 3.780 aleko tirada du eta Aretxabaletan banatzen direnak 2.220 dira. Guztiak etxez etxe.

Hala ere, badugu zer hobeturik, eta horretan ari gara. Gure hurrengo helburua, banaketa pertsonalizatuko sistemak erabiliz, ARETXAGAZETA jaso nahi duten etxe guztietara iristea da. Hala ere, ez da gauza erraza datu base on bat antolatzea.

Iñazio Arregi
Goienako zuzendari
nagusia

LANAK/ Otsaileko euri-jasek errepidetik lurra eroan zuten, eta zartadurak atera zitzaizkion

Arkarazoko errepidea konpontzeko 115.000 euro onartu ditu Udalak

MIRARI ALTUBE

Martxoaren 10ean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak Arkarazoko errepidea konpontzea. 115.000 euro hitzartu zituen horretarako. Orain, lanak nori esleitu erabaki behar du, eta apirilean bertan hasiko dituzte errepidea konpontzeko lanak.

Otsailaren erdi inguruko euri-jasek Aretxabaletatik Arkarazoko baserri batzuetara doan bidea guztiz apurtu zuten. Errepideko lurrek behera egin zuten, eta izu-garrizko zartadurak atera zitzaizkion bideari.

HARRIZKO HORMA

Hala, Udalak erabaki du zartadura horiek estaltzea baino konpontze lan handiagoa behar duela Arkarazoko errepideak, eta horretarako 115.000 euro ematea onartu du: "50 metro inguruko harrizko horma egin behar zaio errepideari, jausi ez dadin. Euri uren eta lurpeko uren saneamendua ere egingo da", dio Jose Mari Segovia Hirigintza teknikariak.

Lanok egiteko hiru enpresari eskatu diote aurrekontua, eta horiek ikusi ostean erabakiko dute nori esleitu: "Lanok lehen-



Errepidea zartatuta egon arren, albotik pasatzeko moduan jarri zuen Udalak.

bailehen egin gura ditugu, baina eguraldia ere kontuan hartu behar da: zenbat eta euri gutxia-

go, hobeto", dio Jose Marik. Apirilean hasiko dituzte, seguru asko, konpontze lanak.

LABUR

Korrika 13ko materiala jarriko dute salgai zapatuan

Bihar, zapatua, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan ekitaldia aprobetxatuta Korrika 13ko materiala jarriko dute salgai kirol etxean, 17:00etan.

Joan den astean, bestalde, herriko denda eta tabernei Korrikari laguntzeko eskatu zieten Loramendiko kideek, eta oso erantzun ona jaso dute. Hori dela eta, eskerrak eman gura dizkiete guztiei. Horren harira, kilometroa erosi gura dutenek Arrasateko AEKra dei dezatela, 943 77 03 69 telefono zenbakira.

Martxoaren 28an zabalduko dute herriko KZGunea

Martxoaren 28an, egubakoitza, zabalduko dute KZGunea. Futbol zelai parean du egoitza, eta Garbiñe Alkorta aretxabaletarra izango da begiralea. Ikastaroak antolatuko dituzte Interneten gainean ezer ez dakitenentzako, eta zortzi ordenagailu egongo dira horretarako. Interneten nabigatu gura duenarentzako, bestalde, lau egongo dira.



Ilegalizazioaren kontrako kale bilkura

Martitzenean egin zuten HBren, EHren eta Batasunaren ilegalizazioaren kontrako lehenengo kale bilkura herrian. *Ilegalizaziorik ez* lelopean 30 bat lagun batu ziren. Gaur ere, egubakoitza, mobilizazioak egingo dituzte, bai Aretxabaletan, bai ibarrean. Bihar, zapatua, ostera, Autodeterminaziorako Bilguneak *Euskal Herria aurrera* manifestaziora joateko dei egin du. Bilbon izango da. /M.A.



Kixkur
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

ARANTZAZU ARROIABE/'EGUNKARIA'-KO LANGILEA

"Beste proiektu bat abian jartzeko konpromisoa hartuta daukagu"

MIRARI ALTUBE

Arrasate Press-tik joan zen Egunkaria-ra' lanera orain dela urte bi eta erdi. Marketin Saileko arduraduna da, eta, lanik falta ez zaion arren, langabezian dago orain. Hala ere, proiektu berria kaleratzeko konpromisoa hartuta dute.

Zein da zure lana?

Marketin Saileko arduraduna naiz. Gure sailean, batetik, harpidetzaz arduratzen gara: harpidedun eta irakurle berriak egin eta haien fideltasuna lortu; bestetik, *Egunkaria*-ren irudia bultzatzeaz arduratzen gara: zein ekitaldi babestu erabakitzen dugu, edo geuk antolatzen ditugu ekitaldiok; eta, bukatzeko, egunkariaren salmentaz arduratzen gara.

Momentu honetan zein egoeratan zaudete langileok?

Egoera larrian. Zuzeneko 150 langile geunden, eta horiei banantzailerak, kolaboratzaileak... gehituz gero, 200etik gora ginen, eta ezer barik geratu gara. Batzuk langabezia kobratzeko zain, beste batzuk hori ere ez, eszedentzia hartutakoak ere bazeuden... Kontuak blokeatuta daukagu, eta 13 urtean egindako lan guztia prezintatuta. Hala ere, langileok oso ondo erantzun dugu, eta gutxi egin dute alde.

Zein da zuren lehentasuna?

Badakigu *Egunkaria* sei hilabeterako itxita egongo dela. Beste proiektu batzuetan pentsatzen hasita gaude, baina aurrera egiteko erosleak behar ditugu. Hori horrela, lehentasun bi ditugula esango nuke: batetik, harpidedunak lortzea beste proiektu batzuk abian jartzeko; eta, bestetik, gizarteari zuzeneko informazioa ematea, inongo manipulazio barik.

Egunero *Egunkaria* baino askoz gehiago saltzen duzue. Zenbat iraungo du horrek?

Bai, momentu batzuetan bost aldiz gehiago saldu dugu eta batez beste hiru aldiz gehiago saltzen gabilta. Badakigu jaitsiko dela, baina ez dugu uste lehenetara itzuliko garenik. Gizartea *Egunkaria*-ren beharraz konturatu da, eta piztutako kontzientzia horiek



"Danbateko gogorra izan da, 'Egunkaria' 13 urteotako momentu onenean zegoelako"

erosten jarraituko dute.

Egunkaria-ren itxierarekin zer galdu duzue?

Danbateko gogorra izan da, batez ere *Egunkaria* 13 urteotako momentu onenean zegoelako. Produktua hobetuta zegoen eta beste proiektu batzuetan pentsatzen hasita geunden. Harpidedun kopurua handia zen, eta langileok baldintza duinak genituen. Bada, dena kendu digute, eta zintzilik geratu dira proiektuak.

Euskaldun batzuei begiak zabaldu eragin dizkie itxierak?

Nire iritziz bai. Argi geratu da Euskal Herriaren, euskararen eta

"Eskerrak eman gura dizkiet guztiei, eta patxadaz har dezatela itxaron beharreko denbora"

euskal kulturaren kontrako eraso izan dela. Jende esanguratsua atxilotu dutenez, gainera, zalan-tza guztiak uxatu zaizkie gehienei.

Aretxabaletarrei zer eskatuko zenieke?

Oso garrantzitsua dela *Egunero* erostea. Herri batzordean herritar asko ikusi nituen, eta horrek asko poztu ninduen. Badakit kale bilkuretan ere jende ugari pilatzen dela. Eskerrak eman gura dizkiet guztiei, eta, bide batez, patxadaz har dezatela itxaron beharreko denbora; guk beste proiektu bat abian jartzeko konpromisoa hartu dugu.

LABUR

Aretxabaletako Aralarrek aurkezpen ekitaldia egingo du datorren martitzenean

Orain dela 15 egun eratzeko batzarra egin zuen Aretxabaletako Aralarrek eta orain, aurkezpen ekitaldia egingo du. Hitzordua martitzenean, hilaren 25ean, izango da, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

Ekitaldi horren bidez, informazio zuzena eman gura diete Aralarreko kideek herritar guztiei. Oinarri ideologikoen gainean egingo dute berba, eta maiatzeko hauteskundeetarako dituzten asmoen berri ere emango dute. Bide batez, Espainiako Estatutik datozen eraso guztiak ikusita abertzaleen batasuna inoiz baino beharrezkoagoa dela adierazi dute, eta hauteskundeetan aukera guztiak egon daitezen lan bateratua egiteko gertu daudela.

Hiruataxek Ekuadorko Amazoniako kitwekin duen proiektua amaitzekotan dago

Hiruatax, hirugarren munduari laguntzeko Aretxabaletako taldea, Ekuadorko Amazoniako kitwekin dabil lanean. 84 mila euroko konpromisoa hartu zuen bere garaian, eta momentu honetan 15 mila euro baino ez zaizkio falta proiektua bukatzeko.

Urtarrilean, bestalde, Hiruataxeko arduradun izan den Ibon Antero joan zen kitwen herrira, Rukullaktara. Sei hilabete emango ditu han, eta pentsu konposatuen enpresa hobeto gestionatzen lagunduko die. Lehenengo proiektua bukatzerakoan, 25 nekazarik gestionatuko duten okelatarako oiloen produkzio jarduera jarri gura du abian Ibonek.

TXUTXUMUTXUA



Gustura ibili ziren sagardotegietan

Sagardotegi denboraldian gaude, eta joan den aste bukaeran irteera bi egin zituzten aretxabaletarrek: zapatuan Loramendi EEko kideak joan ziren eta domekan, Murruxio MEkoak. 18 lagun elkartu ziren zapatuan, trikitilari eta guzti, eta giro polita egon zela sumatzeko erretratua ikusi besterik ez dago. Domekan, berriz, 10 lagun elkartu ziren. Lehenengo buelta-xoa egin zuten Gaineta mendian, haize ikaragarria zebilela, eta gero Zeraingo sagardotegi baten bazkaldu zuten. /M.A.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

AMIETS
TABERNA

Iparragirre, 4
Tel: 943 79 01 29
ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.
Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

FUTBOLA

Erregionaleko bigarren mailako UDA igoera fasea jokatzeko hasiko da

Lehenengo partidua oraingo domekan jokatuko dute, Dunboa-Eguzki CD taldearen aurka

AMAGOIA LASAGABASTER

Dagoeneko amaitu du liga erregionaleko bigarren mailako UDAk. Orain, baina, lanik gaitzena du: igoera fasea jokatzeko eta mailaz igoetzea. Iaz, liga bikaina jokatu ostean, mailaz igoetzeko atarian geratu ziren. Aurten, ametsa errealitate bihurtu gura dute.

Erregionaleko bigarren mailako UDA ondo baino hobeto ibili da aurtengo liga txapelketan. Jokatuak 20 partiduetatik 17 irabazi eta hiru bakarrik galdu dituzte aretxabaletarrek. Golei dagoeneko, 88 egin dituzte eta 25 jaso. Estatistika horiekin ez da harritzekoa aurten ere erregionaleko bigarren mailako UDAk igoera fasea jokatzeko. Hain zuzen ere, etzi, **domekan**, jokatuko dute igoera faseko aurreneko partidua, Irungo Dunboa-Eguzki Kirol Taldearen aurka.

ZAZPI PARTIDU

Aurten, igoera faseko ligaxkan zazpi partidua jokatu beharko dituzte Nedzaden mutilek. Erregionaleko bigarren maila hiru multzok



ARTXIBOA

Lan bikaina egin dute aurtengo ligan Nedzadek entrenatzen dituen jokalariek.

osatzeko dute. Eta orain, multzo bakoitzeko bost talde onenek eta multzo guztien arteko seigarren onenak jokatu dituzte zazpi partidukoak. UDAkoak ligan euren multzoko buru gelditu ziren, 51 punturekin. Hala, Martin Garai tal-

deko ordezkaria baikor agertu da, eta hurrengo denboraldian erregionaleko lehenengo mailan egongo direla uste du.

Igoera faseko azken partidua maiatzaren 18an jokatu du UDAk.

XAKEA

Fran Migel bederatzigarren eta Andoni Migel hamargarren, Durangoko Xake Txapelketan

Joan den domekan, hilaren 16an, Durangoko Xake Txapelketa jokatu zuten Arlutz taldeko Fran eta Andoni Migelek. Fran bederatzigarren postuan geratu zen eta Andoni hamargarrenean. Txapelketan 100 jokalaritik gora ibili ziren lehian, horietako batzuk, gainera, profesional mailakoak. Gauzak horrela, Fran eta Andoni pozik zeuden Durangon egindako txapelketarekin.

TRIALSINA

Markel eta Nagore Uriarte bigarren gelditu dira, nor bere mailan, Gipuzkoako Trialsin Txapelketan

Joan den domekan, hilaren 16an, Arrasateko Udala auzoan egindako azken jardunaldiarekin amaitu zen Euskadiko Trialsin Txapelketa. Markel Uriarte aretxabaletarra bigarren izan zen alebin mailan, eta, azken emaitzen arabera, Gipuzkoako Txapelketan txapel-dunorde izan da. Arrebak, Nagore Uriartek, beste horrenbeste egin zuten: Nagore ere bigarren geratu da emakumezkoen mailan.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Urnieta
Infantilak.
Zapatua. 11:30. Ibarra.
UDA-Eibartarrak
Bigarren mailako gazteak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. (2)-Lazkao
Aretxab. (1)-Goierrri
Nagusiak.
Egubakoitza. 19:30.
Iturrigorri frontoia.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Anaitasuna 1
Preferentea.
UDA 1 Anaitasuna 1
Gazteen ohorezko liga.
Urola 2 UDA 3
Bigarren mailako gazteak.
Urola 8 UDA/Almen 3
Lehenengo mailako kadeteak.
Arrasate 2 UDA/Almen 1
Bigarren mailako kadeteak.
Arrasate 2 UDA/Almen 1
Infantilak.

PILOTA

Udaberriko Torneoa
Ordizia 10 Aretxabaleta 22
Nagusiak.
Debarroko Txapelketa
Antzuola 5 Aretxabaleta 22
Nagusiak.

DERMAJET

zelulitisarekin bukatzeko teknika berri eta ikusgarria

- Zelulitisa eta laranja-azala desagerrarazi
- Gorputz-bolumena txikitu
- Zirkulazioa hobetu
- Larruazalaren trinkotasuna eta tonua hobetu
- Zahartzearen kontrako efektua
- Ildasken itxura hobetu



Gemes
edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18


ETORBI ETA INFORMATU
KONPROMISO BARIK

ERRETRATUZAHARRA

Herriko Pilota Torneoko irabazleak

Futbolak ez ezik, pilotak ere euskaldun ugari elkartzen ditu frontoietan, eta lehen ere halaxe zen. Eskumako erretratuak 50 urtetik gora ditu, eta Aretxabaletan jokaturako Pilota Torneoa ateratakoa da. Paulo Ezpeleta eta Jabier Iturbe izan ziren orduan irabazleak, eta Felix Elortondo Zestero eta Floren Agirre geratu ziren bigarren. Florenen esanetan, Paulo eta Felix ziren garai hartako herriko pilotari onenetakoak Larrinaga anaiekin eta Barrutia anaiekin batera, eta Jabierrek eta Florenek berak laguntzaile lanak besterik ez zuten egiten.

Pilotari onak herri arteko pilota txapelketak jokatzera joaten ziren; gainerakoak, herriko torneoekin konformatu behar. Florenek, hala ere, gogoan dauka Eskoriatzara joan zirenekoa: "Paulo Ezpeletak eta Felix Elortondok osatutako bikoteari lagun egitera joan ginen Txikuri eta biok Eskoriatzara. Lehenengo bikoteak Zurdo de Eskoriatza-ren eta Zubiza-



rretaren kontra jokatu zuen eta Txikuri-k eta biok, Legorburuk eta Marin auzoan ezkonduko nafar batek osatutako bikotearen kontra. Partiduak bukatu genituenean ez zegoen non dutxatu, eta Zaldua izeneko tabernako komunean zegoen

dutxa ziztrin baten dutxatu ginen. Izan ere, partidua jokatu ostean ez zen bidezkoa izango neskengana joatea dutxatu barik, ez?". Pilotan jokatu bai, baina gero garbi agertu gura izan zuten nesken aurrean. Ez dago txarto.

Goiko erretratuan, ezkerretik hasita: Paulo Ezpeleta, Jabier Iturbe, Felix Elortondo Zestero eta Floren Agirre.

Argazkia: Ramon Mari Elkoro

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Lokatzetatik belar artifizialera

Herria asko aldatu zaigu azken urteotan, eta futbol zelai inguruak ere ez da lehengo bera. Askok izango dute gogoan UDAko taldeek lokatz artean jokatzeko zuten garaia, UDAko kideak belarra ondo zaindu beharrean ibiltzen zireneko garaia. Ez da urte askorik pasatu, baina oraingo jokalariek askok belar artifizialeko zelaiak bakarrik ezagutu dute.



≈ 1980

Belar naturala zuen kirol etxe parean zegoen futbol zelaiak. Erretratuan agertzen dena, oster, futbol zelai txikia da.



2003

Futbol zelai txikia zegoen lekuan dago oraingoa, eta kirol etxe parean berdegune handia utzi dute. Markole inguruan etxe ugari eraiki dituzte.



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 21a / 118. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAILETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Osasun Pastoraltzak batzarra egin zuen Donostian

AMAGOIA LASAGABASTER

Gipuzkoako Osasun Pastoraltzako kideek elizbarrutiko urteroko batzarra egin zuten joan den zapatuan, hilaren 15ean, Donostian. Batzarrean Debagoieneko 25 lagun elkartu ziren. Tartean, baita lau eskoriatzar ere. Guztiek ere egun ederra pasatu zuten elkarrekin.

Orain dela 22 urte sortu zen Eskoriatzan Osasun Pastoraltzako taldea. Orduetik hona helburu bakarra izan dute: inguruko gaixoei eta haien senitartekoei laguntzea, hain zuzen ere. Horretarako, hau da, lan hori ondo egiteko, etengabeko heziketa saioetan hartzen dute parte. Hala, joan den zapatuan, hilaren 15ean, Donostian izan ziren, Gipuzkoako elizbarrutiko batzar orokorrean.

HITZALDIAK ETA GOGOETAK

Gipuzkoako bazter guztietatik joandako Osasun Pastoraltzako taldeak elkartu ziren Donostian. Denera 348 lagunek hartu zuten parte batzarrean. Aurten, gaixoez arduratzen den Pastoraltzaren leloa *Gaixoak parrokian lehenta-*

suna izan da. Hori oinarri hartuta, gai horren gaineko hainbat gogoeta egin eta berbaldi entzuteko aukera izan zuten Osasun Pastoraltzakoek Donostian. Goizean elkartu eta batzarra egin zituzten. Arratsaldean, bestalde, hainbat gaixoren testigantzak entzun zituzten. Pastoraltzako esanetan, berbaldi horiek gaixo-

ak eta haien sentipenak hobeto ulertzen ikasteko balio izaten dute. Horrez gain, Donostian egin-dako batzarra Gipuzkoako beste herri batzuetako Osasun Pastoraltzako kideak ezagutzeko balio du. Esperientziak elkartrukatzeko dituzte eta hainbat gairen gaineko kezak argitzen dituzte.

ZORTZI LAGUN

Eskoriatzako Osasun Pastoraltzan zortzi lagunek hartzen dute parte. Donostiara, baina, lau lagunek egin zuten bidaia. Maritxuk, Timutik, Dionik eta Karmelek, hain zuzen ere. Horiek dagoeneko 22 urte daramatzate Eskoriatzako gaixoak zaintzen. Pozik daude egiten dutenarekin, eta ez dute Osasun Pastoraltzaren uzteko asmorik. Edozelan ere, gustura hartuko lukete jende gehiago taldean. Horregatik, parte hartu gura duten guztiei besoak zabal-zabalik dituztela gogorarazi gura izan die Maritxu Alegria taldeko kideak: "Gutxitu psikikoekin egiten ditugun udalekuan laguntza handia izaten dugu, baina urtean barrena beste hainbat ekitaldi egiten ditugu, eta horietara ez da jendea hurre-ratzen", dio Maritxuk.

Denera 348 lagunek hartu zuten parte Osasun Pastoraltzako batzarrean

Gipuzkoako Osasun Pastoraltzak gustura hartuko luke jende gehiago taldean

ANDONI BENGEOA/'EGUNKARIA'-BATZORDEKOA

"Harpidedun egitea da, nire iritziz, aukerarik onena"

AINZANE GARDOKI


Osailaren 26an, hamar lagun elkartu ziren Euskal Txokoan, eta *Egunkaria*-ren aldeko batzordea sortu zuten. Geroztik, astelehenero batzen dira. Taldeak hiru helburu finkatu ditu, eta herritarrek animatu gura ditu batzordean parte hartzea.

Zein helburu finkatu ditu batzordeak?

Hiru helburu nagusi finkatu ditugu: lehena, *Egunkaria*-k dituen beharrei erantzuteko harpidedunak egin eta dirua lortzea; bi, herrian *Egunkaria*-ren aldeko ekimenak antolatzea; eta hiru, *Egunkaria*-ren inguruan sortzen diren albisteak eta berriak herrian zabaltea.

Zenbat *Egunkaria* saltzen ziren lehen herrian? Eta orain?

Lehen, 15. Horietatik 13 harpidedunak ziren. *Egunkaria* itxi zuten ondorengo egunetan gehiago saldu ziren arren, orain 40 inguru saltzen dira. Dena dela, egunkari berria sortzeko beharrezkoa da salmentei eustea eta harpidedun gehiago egitea, bestela jai daukagu.



Zer egin dezake herritarrek *Egunkaria*-ren alde?

Aukera ugari ditu, eta harpidedun egitea da, nire iritziz, aukerarik onena. Bono-laguntzen bidez laguntza ematea ere badu. Eta *Egunkaria* eta horren ostean etor daitekeen egunkaria erostea eta antolatzen diren ekintzetan eta sortu berri dugun batzordean parte hartzeko aukera ere badu herritarrek. Batzordea parte hartu gura duten guztiendako dago zabalik. Informazio zabalagoa jasotzeko, deitu 943 71 54 34 telefonora, arratsaldez.



Kamioia irauli zen erdialdean

Joan den egubakoitzean, hilaren 14an, udaletxe parean egiten dabiltzan etxebizitzetan istripua izan zen. Bolibarrera doan bidean kamioi bat alde baten eta hondeatzeko makina bat bestean lanean zebiltzan. Traba egiten zutela eta, Udaleko langile batek bidea autoendako libre utzi behar zutela agindu zien.

Hala, kamioia atzerantz zihoala, gorpil bat zulo baten sartu eta irauli egin zen. 10:30ean gertatu zen istripua eta 13:30ean atera zuten kamioia zulotik, garabi batekin. Kamioi gidariak zauri arinak izan zituen. /A.G.

LABUR

'IDATZIAK, gonbitak, zorion agurrak, oharrak...'

Debagoieneko udaletako euskaraz zerbitzuek lankidetzan prestatu duten idatzi bilduma da *IDATZIAK, gonbitak, zorion agurrak, oharrak...* Egunkari gertatzen diren egoeretan edonork idatzizko zerbitzu sortzeko izan dezakeen beharretara egokitutako testu sorta eskaintzea du liburuxkak helburu. Eguaztenean Arrasaten aurkeztu zuten liburuxka herritar guztiei dago zuzenduta; guztira 10.600 ale banatuko dituzte. Eskoriatzan, interesatuek ale bat harzeko aukera izango dute kultura etxean.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oriati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

HELDUENDAKO IPUIN KONTAKETA

Hilaren 28an, egubakoitza, Jacquelin de Barros uruguaiarrak helduendako ipuinak kontatuko ditu HUHEZIKo Fakultateko areto nagusian, 22:30ean.

BERTSO AFARIA XANTI IPARRAGIRREREN OMENEZ

Datorren zapatuan, hilaren 29an, bertso afaria egongo da Xanti Iparragirrearen omenez. Apotzagako elkartearen izango da eta Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Xabier Silveira ibiliko dira bertsoan. Afarirako txartelak ohiko tabernetan egongo dira salgai.

AXTROKIRENAGENDA

LUDOTEKAN BEGIRALE BERRIA

Oraingo astean hasi da lanean begirale berria Tortolis ludotekan; Itsaso Uribebebarria da, 25 urteko aretxabaletar gaztea. Olatz Arreseren ordez egingo du lan Itsasok.

EUSEBIO CORCUERA/ESKORIATZAKO ARMARRIA ZAHARBERRITU DU

“Eskoriatzako armarrria, inguruko gehien moduan, kareharrizkoa da”

AMAGOIA LASAGABASTER


Eusebio Corcuera, Siglo XXI enpresako langilea, udaletxearen gainaldean dagoen armarrria zaharberritzen ibili da. Ez du lan erraza izan, armarrriak urtetan izan dituen erasoek, hala nola, euriak eta bakteriek, asko kaltetu dute-eta.

Zelakoa da Eskoriatzako udaletxean dagoen harrizko armarrria?

Hemen inguruko armarrriak hareharriz edo kareharriz eginkoak dira gehienak. Eskoriatzako, ordea, marmolezkoa edo alabastrozkoa dela uste izan dugun arren, lanak amaitu ondoren egin ditugun azterketen emaitzek kareharrizkoa dela esan digute. Armarrriaren neurriari dagokionez, tamaina nahiko handia du; altueran metro eta erdi baino gehiago izango du eta zabaleran, berriz, metro bat. Barruko irudian argi ikusten da San Migel Goiangerua ageri dela.

Zaharberritu aurretik zelan zegoen?

Udaletxeko armarrriak kalte handiak zituen eta nahiko hon-



datuta zegoela esan daiteke. Laburbilduta, lau arazo zituela esan genezake: urtetan gehituta zementu zatiak eta bestelako materialak itsatsita, guztiz hondatutako armarrri zatiak, ingurumenak eragindako kalteak, eta, azkenik, eraso biologikoak.

Eta horiek guztiak kontuan hartuta zein lan egin dituzue? Guk zaharberritze lana bost

“Udaletxeko armarrriak kalte handiak zituen eta nahiko hondatuta zegoela esan daiteke”

“Etorkizunean ere itxura ona izan dezan beste osagai batekin babestu dugu armarrria”

alditan banatuta egin dugu: lehenengo eta behin, itsatsitako zementu zatiak eta bestelakoak kendu ditugu; gero, eraso biologikoari aurre egin diogu. Horretarako, osagai batzuekin armarrria busti eta plastikoekin estalita izan genuen hainbat egunean. Pauso hori oso garrantzitsua da; izan ere, aurrera jarraitu aurretik, ziur egon behar dugu nikelen, algen eta horrelakoen eraso-

etatik kanpo gelditu dela harria, bestela berriro ere agertuko zaizkio-eta. Gero, elementu biologiko horiek ezabatutakoan, garbitasun mekanikoa deritzona egin diogu. Aldi horretan, hautsa eta armarrriak duen margo guztia garbitu diogu. Eta behin garbi-garbi, gatz mailaren proba egin diogu. Harri batek gatz indize jakin bat izan behar du ondo egon dadin. Eta euriak, esate baterako, indize hori gehitu egiten dio harriari.

Azkenik, etorkizunean ere itxura ona izan dezan beste osagai batekin babestu dugu armarrri osoa.

Eta zenbat denbora eman duzue lan horiek guztiak egiten?

Eguraldi ona egin duenetan eduki dugu lan egiteko aukera. Uste genuen baino denbora luzeagoa eman dugun arren, guztira hiru aste inguru behar izan ditugu lana amaitzeko.

Pozik lortutako emaitzarekin?

Bai, armarrriaren erliebea oso ikusgarria ez den arren, orokorrean armarrria kalitate onekoa da. Pozik gaude lortutakoarekin.

TXUTXUMUTXUA



Arizmendiko ikasleek zuhaitzak landatu dituzte

Lehenengo mailan hasi ziren ikasleek zuhaitzak landatu zituzten Torrebason: “Ikastolara datozen ikasle berriek zuhaitz bat landatzeko ohitura zaharra da. Nagusi egin eta ikastola utzi bitartean, gela bakoitzak bere zuhaitza zaintzen du: ureztatu, ingurua garbitu... Ekintza ugari zuhaitzaren inguruan egiten dituzte”, esan digute lehenengo mailako tutoreek. Aurten, haritzak landatu dituzte. /A.G.

LABUR

Kontzertu didaktiko interesgarria

Joan den egubakoitzean kontzertu didaktiko interesgarria eskaini zuten Juan Mari Beltranek eta harekin etorri ziren bi laguntzaileek. Axtrokik antolatutako hitzaldi-emanaldian, soinu tresnak eta beraien erritmo, doinu eta tinbreen bitartez, Euskal Herriko musikaren zenbait alderdi erakutsi zituzten. “Bikaina izan zen. Herritar gutxi izan ziren ekitaldian eta horrek pena sortzen digu”, esan digute Axtrokitik. Datozen hila-beteetarako hainbat ekitaldi prestatu ditu Axtrokik.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Gatzagako udalbatzak aho batez onartu du 2003rako udal aurrekontua

AINTZANE GARDOKI

Urtarrilean, urtearekin batera hasi ziren Udaleko batzordeak landu beharrekoak lantzen. Udal aurrekontua 386.552,03 eurokoa izango da. Kopuru horretatik 107.341,90 euro egin beharreko gastuetarako izango dira.

Udalbatzak, otsailaren 27an zuen hileko ohiko bilkuran, 2003rako udal aurrekontua onartzeko lehenengo ahalegina egin zuen. Baina aurrekontua ez zen guztiz zehaztu martxoaren 13a arte: "Orokorrean guztiz bat gentozen batzarkideok, baina kapitulu batzuk zehazteko utzi genituen. Joan den egunean, berriz, zehaztu bakoak zehaztu genituen".

Aurtengo ekitaldirako udal aurrekontua 386.552,03 eurokoa da. Kopuru horretatik 107.341,90

"Martxoaren 28an inauguratuko dute museoko proiektuaren barne dagoen denda"

euro egin beharreko gastuetarako izango dira.

AURTENGO EKITALDIRAKO INBERTSIOAK
Herriko alkate Joxerra Agirreurretak aurtengo ekitaldirako finkatu dituzten inbertsioak azalzerakoan hainbat multzo egin ditu: "Amaia Olabek eta Aitziber Gorosabelek kudeatuko dute museoaren proiektua. Martxoaren 28an inauguratuko dute proiektuaren barne dagoen denda. Oinarrizko produktuak, gutziak eta

2003rako aurrekontua

Inbertsioak	107.341,90 €
Karkabaren urbanizazioa	30.000 €
Gatz museoaren proiektua	24.900 €
'Skate-park' plataforma	12.000 €

UDAL AURREKONTU OSOA
386.552,03 €

artisautza izango dituzte salgai, besteak beste. Proiektu horri gogoz heldu gura izan dio Udalak. Horrez gainera, museoan bertan gatza zelan egiten den erakutsiko duen maketa egingo dugu aurten. 18.900 euroko aurrekontua daukagu

Dominaga aldera ur gehiago eramán, eta artxibo historikoa egingo dute

horretarako", esan digu Agirreurretak.

Gatzagarren lehenengo kokalekua Labidea deitutako lekuan izan zen: "Kanposantuaren atzeko aldean dagoen parajea da Labidea. Oso leku eguzkitsu eta ona da, baina, era berean, ezezaguna da gehienondako. Gerora begira, interbentzio posible batzuk egin daitezke han, agian. Horregatik, Udalak lan kartografikoa egin gura du aurten", gaineratu du Joxerrak. Bestetik, Pilar eta Rosa-

rio kaleen artean dagoen karkaba zabaldu egingo dute: "Erdi Aroan ur zikinak botatzen zituzten karkaba horietara. Guk, gerora, gasifikazioa eta zuntz optikoa sartuko ditugu kale estu horietan. Baina, horrez gainera, poliki-poliki herriaren harresia errekuperatu gura dugu. Aurten Pilar eta Rosario arteko karkaba urbanizatzeko 30.000 euro gastatuko ditugu", esan digu Joxerrak.

Dominaga aldeko baserrietara ur gehiago eramatea eta artxibo historikoa egitea ere ditu aurtengorako helburu Udalak.

UMEENDAKO 'SKATE PARK'-A

Aurtengo aurrekontuetan *skate park*-a jartzeko proposamena onartu zuen joan den astean Udalak. 5x8 metroko *U* itxurako plataforma izango dute laster umeek frontoiko plazan, *skate*-arekin gura beste ibiltzeko.

'Egunkaria'-ren aldeko kale bilkura Gatzagan

AINTZANE GARDOKI

Joan den egunean, hilaren 13an, lanuzteak eta elkarretaratze jendetsuak izan ziren han eta hemen, Euskal Herriko herri gehientsuenetan. Gatzagan, goizean, udaleko langileek, eskolako ume eta irakasleek eta lhardun enpresak egin zuten geldialdia.

Arratsaldean, berriz, herritarrak jai giroan elkartu ziren 18:00ak baino minutu batzuk lehenago. Umeek, gazteek eta herriko nagusienek hartu zuten parte *Egunkaria*-ren aldeko kale bilkuran. "Herrian horrelako ekimen bat egiten den lehenengo aldia izango da, seguruenik. Nik 35 urte

ditut eta ez dut horrelakorik egin denik gogoratzen", esan zigun herritar batek. 75 lagun inguru elkartu ziren. "Hori herrian bizi garenon ia-ia bitik bat da", esan zigun alkateak.

'EGUNKARIA, AURRERA'

Astelehenean hasita, herriko umeek ludotekan egin zituzten *Egunkaria*, *aurrera* zioen leloaren letrak. *Egunkaria*, *aurrera* oihu eginez, herritarrek frontoiaren atzeko aldean egin zuten bilkura, errepideari begira. Arratsaldean Gatzagako bidean gora eta behera dabilzan ehunka autoren laguntza izan zuten gatzagarrek; izan ere, autoen klaxonek eta herritarren oihuek bilkura animatu zuten.



Herritarren *Egunkaria*, *aurrera* oihuek eta autoen klaxonen hotsek giroa animatu zuten Gatzagan.

AINTZANE GARDOKI

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumiioa erabiltza

Aingeruardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA



ALTUNA
HARATEGIA
San Pedro 3
ESKORIATZA



ANGELINES
AUTOZERBITZUA
Mitarte 16
ARETXABALETA



BEATRIZ
ARRANDEGIA
Otalora 19
ARETXABALETA



BENGOA
HARATEGIA
Durana 9
ARETXABALETA



CHARTER
JANARI DENDA
Aranburuzabala 3
ESKORIATZA



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
Errekabarren 14
ARETXABALETA

OSAGAI ONENAK GURE KONTU



ETXABE
HARATEGIA
Durana 4
ARETXABALETA



GANTXEGI
HARATEGIA
Santa Kurtz 5
ARETXABALETA

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



IMANOL
JANARI DENDA
Gorbea 8
ARETXABALETA



IOSU
HARATEGIA
Mitarte 1
ARETXABALETA



JON
HARATEGIA
Loramendi 1
ARETXABALETA



LEIBAR
ARRANDEGIA
Loramendi 1 / Mitarte 1
ARETXABALETA
Aranburuzabala 7
ESKORIATZA



PAGALDAI
HARATEGIA
Gaztainadui 15
ESKORIATZA



ZUBIA
HARATEGIA
Santa Ana 11
ESKORIATZA



G-706



Udaberri
honetan
gaztetu
egingo
zaitugu!

ANA'S

Iparragirre 4, ARETXABALETA